

Aintzane Garate

"Orpennerrit

Pedro Miguel Urruzuno idazle elgoibartarraren biitza eta obra

UDALETXETIK

98ko Udaf aurrekontuak eta apirilaren 6ko plenoa

TxikiBARREN

BERBETAN

Esther Mugerza, Lourdesko peregrinazio taldeko arduraduna

Gustavo Barrenetxea, Bakearen Munduko Orkestan joko duen Estatuko ordezkari bakarra

# ARREN

1998ka apirilaren 1 a Vi. urtea - 232. zkia.

GO R K O A S T E I " A A

£1115£11~1;3 E10991PLZ?àB45  
"PIR113.5£11/91ZZO

"Igeriro herinano: IFot... para ue.tc, Oon Pc&ritto «ita conl... cuiba-puertm. toro Gartu-irten, "e... e poeible = tu hennana if+7alcm... lo"

(-incencarral)  
LETzukeao... gatik  
Praiedzinazi...

2.Teneng

craltwtal...  
lberZTh...  
bizitnob...  
13raitlitit

lberc...  
.3\_3cn gat...  
Iff2abrill...  
Vnput...

cta...  
.3113111...  
Igun os...  
luil taten L...  
Irc)crea

- 11,3tczazu
  - Scrgatik c...
  - **tisai** charra
  - e'harratioa ba
- oick.

- "15eñoralt" ce•aten 1.sa,
- "£scnora" izen goiti cbo gal ben oicntzat, cta i crc...



**Pedro Migel Urruzuno iciaziea (i 844-1923)**

# 75 urte hil zela

**ostarku**  
**argazkigintza**  
 4.11 "''''" 115<sup>15</sup>  
*Zure Ja7112(arlzeio aryczziat,*  
**gizilza osoraA oroiijorrth**

Santa Ana, 5 • Tel: 943 74 06 46  
 ~ 1.1 ~ e

**GLAZA**  
 Pedro Muguruza, 8 • Tel: 943 74 16 42

*Jaunartzeak*



AINTZANE GARATE

## Aurrerapenaren esklabu

**B**izitzaren mugara iritsi garela iruditzen zaidan egun honetan, atzera begiratu eta egindako guztiari buruzko gogoeta egiteko une egokia dela ere ia ez gara konturatzen.

Askotan, ordea, atzera begiratzeak lotsa ematen digu, izan ere, zenbat gauza aldatuko genituzke! Baina benetan ezer konpontzerik izango al genuke? Iragana joan zen, laga dezagun pakean eta ekin diezaigun orainari gogoz.

Oraina iraganaren islada besterik ez da, izan ere, garai batean sustraitu genuenaren arabera, koa baita gaurko eguna. Nire baitan indar ulergaitzat jotzen dudana horrek, kontzientziak alegia, kritikara bultzatzen nau. Gure haurtzaroa izan zena eta gaurko gure seme-alabena dena, gure familia eta gaur beraiei eskaintzen dieguna,... gerora begira bidea osatuko duten harriak izango dira.

Hau guztia gogoratzean galdera bat ere datorkit gogora; zer da egokiena? Herriko enparantza handian "soka-saltoan" ematen genituen ordu amaigabeak ala ordenagailuaren bidez jasotzen dugun aurrerapen-sarea? Etxera iritsi eta beheko suaren garrek beroturiko sukaldean amak prestatutako ogitartekoa, ala mahai gainean, aluminioz-

ko paper ximurtuan bildurik aurkitzen dugun "sandwich"a, bat-batean pizten den berogailu elektrikoaren aireaz lagundurik?

Hainbeste dira inguruan biraka izaten ditudan galderak... baina zentzuak nire ezinegona lasaitzen du bizitza handik eta hemendik bildutako harrien pilaketa ez dela esanez. Sandwich-a eta behetosua bizi dugun unearen islada dela, eta iragana, oraina eta geroa osatzen duten bidearen ezaugarriak direla esaten dit. Bizitza, maitasuna eta hau azaltzeko gaitasuna da, beste faktore guztiek bizitzaren oreka eta alde berean desoreka ere osatzen dute soilik.

Biharko eguna gogoz hasiko dut, gertatzen zaidana eta baita gertatzen ez zaidana ere geroaren oroitzapen bilduma izango direla badakidalako.

Izan ere, ez al da bizitzeko gogoia giza-kiaren funtsa?

Aurrerapenaren sareetan gaude eta horrek ez du atzera bueltatzerik, egin dezakegun gauza bakarra iraganean egindako akatsak gaur ez egitea da, askotan hainbeste aurrerapenekin atzera goazela tzen baitzait. Bizitza orekatzen duten faktore horietan jarri behar dugu arreta, gaur ezaugarri soil diren horiek geroaren oinarri izango baitira.

**"Aurrerapenaren sareetan gaude eta horrek ez du atzera bueltatzerik, egin dezakegun gauza bakarra iraganean egindako akatsak gaur ez egitea da..."**

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen aukeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

## Barrak, Birrak eta Barreak



# BaRREN



Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAFI

74 41 12

Publizitatea:  
rer 74 37 04

Faxa: 74 37 04

ARGITARATZAILEA	Elgoibarko Izarra
LAGUNTIAILEA	Elgoibarko Udala
ZUZENDAR1A	Ainhoa Lodoso
KAZETARIAK	Ainhoa Lodoso, Jasone Osoro
PUBLIZITATEA	Miren Morena
MAKETATZAILEA	Mikel Cornejo
ADMINISTRAMA	Amaia Manin
GERENTZIA	Rafa Alvarez, M. Angeles Ortuoste.
KOLABORATZAILEAK	Itzi Agirreazaldeg Ana Artetxe, Jose Mari Bastida, Mari Karmen Elorza, Maider Elustondo, Jon Eugi, Koldo Galdona, Aintzane Garate, Jon Garate, Juanito Gorostiza, Amaitz Gorriti, Alberto Iriondo, Iñaki Jaio, KOKOE, Imanol Larrañaga, Nieves Loiola, Ongarri Zine Kluba, Julian Segundo, Jon Suarez, Anjel Ugarteburu, Leire Urkidi, Iban Urizar, Miren Vallejo.
BANAKETA ARDURADUNA	1M81101 Larrañaga
1NPRIMATEGIA	Gertu Koop. E.
T1RADA	4.000 ale
LEGE GORDAILUA	GS-1.038/92
ISSN	1133-021X

Elgoibarko Udalak, Eusko  
Jaurlaritzako Kultura



III f: d d d - ñn

**il** DANOBAT  
IEMY MAQUINAS HERRAMIENTA

**ESIGOITI**  
GRUPO DANOBAT

## Halea mintien II

Udaltzaingoak gure salaketari erantzunez plazaratutako hitz jario merketik gertakizunak bereiztu ondoren, zera atera dugu garbi: nahia-go dute ezer ere argitu gabe morroi gisa jarraitu eta aurpegia garbitzen saiatu euren "buruzagi" politikoak lotsatan utzi baino.

"Faltsukeriak, manipulazioak, gezurrak", "salaketa oinarribakoak", "adulterazio eta enbustekeria pila", "legez aukeratutako ordezkari politikoak" (azken hau hiru aldiz)... hitz jario puztuegia berez edukirik ez duten azalpenentzat.

1- Udaltzaingoa politikoki ari dira erabiltzen. Adibidez, adierazpen askatasunaren kaltetan. Sarri askotan kartelak jartzea salatzen dute, beste batzuetan, kartelaren arabera, ezikusiarrena egiten dute, eta inoiz, eurak izan dira kartelak jartzen aritu direnak.

Beste adibide bat: "Deba ibaiaren desbideratzean" Udalak gure alegazioei muzin egin eta erantzun ere ez zigunean egin, 1995-10-27ko plenora joan ginen pankarta batekin. Ekintza haren arriskuaren aurrean nonbait, Udaltzaingoak bereak eta bi egiteari ekin zion pankarta kendu nahian, lurrean arrastaka ibili gintuelarik etab... Orain Eusko Jaurlaritzatik arrazoa eman digute eta obra haundi-maundi hori egitea eragotzi dute. Zein dira jarrera agresiboa omen duten horiek Garate Jauna?

2- Gezurretan ari dira otsaileko plenoan gertatutakoari buruz ari direnean. Gazte batek patina jaso bazuen, udaltzain baten eraso saihesteko izan zen. Gure asmo bakarra Udalak soldaduzkarekin kolaboratzean erakusten duen jarrera hipokrita salatzea zen modu paketsuan. Zinegotziek ez zuten euren "integritate" delako hori arriskuan ikusi.

3- Nahiz eta Diputazioak ohartarazi, Udaleko arduradunen utzikeriari esker, isuri toxiko bat izan zen ibaian. Udaltzaingoa lekuko izan bazen ere, "herritarren zerbitzura dagoen talde profesional" honek ez zituen herritarrek informatu. Non dira salaketa fantasmagorikoak?. Gainera, harritu egiten ditu nonbait Gazte Asanbladak gertaera hauek "lau hilabete beranduago" kaleratu izanak. Herritarrei ja-

kinarazteak arduratzen al ditu? Delitu ekologikoak 10 minutuko epe jakina al du? Nork agindu zuen hau guztia ezkutuan edukitzea?

4- Udaltzaingoak behin eta berriz "izenik eman nahi ez duten pertsonak" garela dioenean aurpegiarik eman gabe gezurretan ari garela sinestarazi nahiko du, era horretan gure salaketak hutsean gera daitezen, baina trikimailu hori oso zaharra da jadanik. Udalean sartzen dugun idatzi orok, izen-abizen, NAN zenbaki eta sinadura ditu. Udalak Gazte Asanbladarekin komunikatu nahi duenean ondotox daki norra jo, Udaltzaingoak bere parteetan salaketak egiten dituen gure izen-abizenak ondotox dakizkien moduan. Plenoetan ere bada zinegotzi bat bertara doazen pertsonen izenak hartzen jarduten duena. Txorakeria gutxiago beraz, hemen denok ezagutzen dugu elkar eta.

Bukatzeko, gure salaketari sendo eusten diogula adierazi nahi dugu, ez dugula bertatik koma bakar bat ere aldatzeko asmorik.

P.D. Gazte Asanbladaren agiriak guk geuk idazten ditugu. Esan al dezake beste horrenbeste Udaltzaingoak?

**Gazte Asanblada**

BARRENez ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik,

## KEXAK

• Herritar batek Karakateko tontorrean ikusi zuena salatu nahi du: "duela **bi ostegun Karakate gainean bi sute piztuta zeuden. Egun horretan sekulako haizea zegoen. Horrelako haizea egonda, **nola izan daiteke horren arduragabea sua pizteko, nahiz eta garbiketa egiteko izan? Mendizaintzakoak ere nahiko arduragabeak direla iruditzen zait** gaueko 21:00etan suak piztuta jarraitzen baitzuen, pagondo-**

tik oso gertu. Pagoei buruz ari naizela, **Hirukurutzeta aldean tamaina dexenteko pagoak ebakita zeudela ikusi nuen.** Honako galdera etorri zitzaidan burura: **ebaki al daitezke pagoak?** Ezetz uste nuen. Benetan, **gure mendietan kontrolik ez dagoela iruditzen zait**, gero eta pago gutxiago dauzkagu eta inor ez da zaintzeaz arduratzen. Hori bai, laguntzak eskatzerako orduan gauzak beselakoak izaten dira, ezta?"

## TXALOAK

• **Bi neskato etorri dira Atxutxiamaiaka Begirale Taldea txalotzeko.** "Martxoaren 21ean egin zen Udaberri jaietan oso ondo pasatu genuen eta horregatik txalotu nahi ditugu".

• Herritar batek **Arturo Andrade** eskultorea txalotu nahi du "bere **eskulturak Kultur Etxe aurrean laga dituelako.** Benetan oso ideia polita iruditu zait erakusketa kanpoan egitea".

# BAI, ESAN?



**Noreen O'Sallaghan**

Ingeles irakaslea

Aste honetako telefono deia Irlandara begira egin dugu. Denok jakingo duzuen bezala, bake akordioa sinatu berri dute eta badirudi azken urteotako gatazka armatuak bere azkena ezagutu dezakeela. Gai honi buruz berba egiteko gure artean lanean dagoen **Noreen O'Callaghan irlandarrari** deitu diogu.

- **Nola jaso duzu bake akordioaren berria? Zein izan da zure erreakzioa?** Poztu egin nintzen eta lasaitu handia hartu nuen. Nire bizitza osoan Ipar Irlandako egoera oso gertutik bizi eta jarraitu izan dut eta bidea luzea eta gogorra dela badakidan arren, bertan bizi direnek bakean bizi izateko itxaropen handiagoa behintzat badutela ikusten dut.

- **Egon al zara Irlandako jendearekin? Senitartekekin, Iagunekin?** - Hangoen erreakzioa orokorrean oso baikorra izan da baina hala ere, jakin badakite lan asko dagoela egiteko eta gorrotoa ez dela egun batetik bestera desagertuko. Ipar Irlandarako bakea nahi ez duen gizakirik ez dago munduan eta are gutxiago Irlandan.

- **Azalduko al diguzu motz-motz Irlandako gatazka armatuaren jatorria eta zergatia?** - Ipar Irlandako gatazkaren jatorria eta historia azaltzea ez da batere erraza lerro gutxitan eta ez da hori nire asmoa. Iragana oso garrantzitsua da eta ez genuke sekula ahaztu beharko. Gaur egun garrantzia handiagoa ematen diot etorkizunari, bertan aurkituko baitugu Ipar Irlandarako bakea.

- **Bake hitzarmena sinatzeaz bat, Irlandako eta hementxo gatazkaren arteko konparaketak hasi dira.** - Ipar Irlanda eta Euskal Herriaren artean parekotasunak egon badaude baina ezberdintasunak ere bai. Hala ere, edozein akordio lortzeko oinarri amankomun bat dago: **HITZ EGITEA.** Irlandan ez litzateke bakea lortuko **HITZ EGIN** gabe.

# OIRSO TFIBERNR

Olaso industrialdea, 15  
Tel 943 74 31 85

-EGINEKO MENIIRK-  
-IRRUNBRTETRN-  
Rabak\*Olagarroa Friteak  
-GRIIEZ-  
Menu ekonomikuak eta  
niater konbinatuak

O Meriendak, haurrentzako konbiteak,  
afariak, luntmak, banketeak...  
• Enkarguak egiteko aurrez deitu

ESKF1 EZAZ11 FIOOREKONTUFI  
INOLI1KO KONPROMEZI1R1K GABEI

Orduategia: RstelerienetW astiraiera 7:10-22:30  
Larundatetan 9:00etatik aurrera

# Pku Urruzuno Herriarentzat umorez Idazten zuen apalza

*Pedro Migel Urruzuno 1923. urteko apirilaren 14an hil zen, orain dela 75 urte hain justu. Idazle elgoibartar hau askorentzat ezezaguna da, nahiz eta 1969ko apirilaren 25etik bere izena daraman kalea daukagun. Horregatik, Elgoibarko Izarrak apaiz jator honen izana eta izena berreskuratu nahian Aste Literarioa antolatu du maiatzerako. Aste honetan, berriz,*

*BARRENeK omenaldi txiki bat egin nahi izan dio Urruzuno zenari eta zer hobe bere lanaren berri orrialde hauetan ematea baino. Pedro Migel Urruzuno, "Ur-zale", "Urruzuno P.M.". Norbaitek elgoibartar idazle honen lanak irakurtzea nahi izanez gero, Elgoibarko Izarrara jo besterik ez du, bertan doan banatuko baitzaio Urruzunoren idatziak jasotzen dituen liburua.*



*Honako hau da Urruzunori buruz dagoen argazki bakarra.*

**P**edro Migel Urruzuno Salegi 1844ko apirilaren 29an jaio zen Arraba] (San Frantzisko) kaleko 110. zenbakian. Bere gurasoak Juan Bautista (errementaria) eta Manuela izan ziren, biak ere elgoibartarrak. Hala ere, gaztetan Lesakan bizi izan zen Pedro Migel. 1970. urtean apaiz egin zen eta Elgoibarko eritegian egon ondoren, Parrokiako erretore izan zen 1976-79 urteen bitartean. Urte horretan, Mendarora joan behar izan zuen eta han pasa zituen bere urterik gehienak, Garagartzako erretore bezala lehenengo eta Agustifietan kapellau geroago, 1890 urtera bitartean hain zuzen ere.

## Kontakizun barregarriak

Ipuinak, kontakizunak, olerkiak, gertakariak, bertsoak, gabon eta eliza kantak... denetik idatzi izan zuen Pedro Migel Urruzunok. Eguneroko bizitza arruntean bilatzen zituen gaiak eta pertsonaiak eta haiez baliatzen zen kontakizun simple eta umoretsuak idazteko. Izan ere, Urruzunok idatzitako lan guztien artean barrea eragiten dutenak dira ezagunenak. Idazkera sinplea zuen, ulerterraza. Azken batean, Urruzunok herritar xeheengana hurbildu nahi zuen haiek erraz irakur zitzaten bere idatziak. Besteak beste "Euskal Erria", "Euskalzalet", "Ibaizabal", "Euskal Esnalea", "Baserritarra", "Jesusen Biotzaren Deya", "Zeruko Argia" eta "Argia" aldizkarietan argitaratu izan zituen bere kontakizunak, horietako asko gaitzenez sinatuta: "Ur-zale", "Urruzuno", "Urruzunoko Pedro Migel", "P.M." edo "Neskazarren lagun bat".

## Euskalzaletasuna eta fedea

Urruzunok bere ipuinen bidez bi gauza azpimarratzen zituen bereziki. Alde batetik euskalzaletasuna suspertzen zuen eta bestetik, euskal giza-jo-

**"Eguneroko bizitzan bilatzen zituen gaiak eta pertsonaiak eta idazkera arina eta erraza erabiliz,, ironia eta umorez idazten zituen ipuinak Urruzunok, herri xeheak irakur zitzen pentsatuak."**

kabide eta bizitzari buruzko zenbait irakaspem ematen zituen. Urruzunorenak beti ere moral tradizional baten ikuspuntutik sortutako giza baloreak ziren. Izan ere, elgoibartarrak euskara edo euskalzaletasuna erabiltzen zituen giza-baloreak igortzeko. Eta alderantziz, Urruzunoren mistikaren osagaiak euskal nortasunaren giltzarriak dira ipuinean zehar. Hona hemen adibide bat: "Esna gaitezen gauza bitara: euskarara eta benekotasunera. Gizonak ez du izan behar ez harroa, ez gezurtia, ez goi-zalea, ez berrizalea. Bai, orde, apala ta umila, esanekoa eta zintzoa... Nolatan izan liteke euskalduna, euskara jakin eta egin nahi ez duena? Edota nola izan liteke benetakoa, kristau fedeko morala praktikatzan ez baldin badu?". Honen haritik, Urruzunok garaiko garbizalekeriaren kontra egin zuen. Izan ere, bere iritziz ideia zaharrak ziren benetako balorea zutenak. Berak esana zen, "gauza zaharretan zaharrenetariko bat euskara izanik, nola euskalzale bagara izan gintezke berrizale?".



1923ko apirilaren 14an hil zen P.M. Urruzuno. Irudian haren hilobia Olason.

**Urruzunoren idazkera**

Aurretik esan bezala, Urruzunoren idazkera erraza zen, arina eta garbia, oso ulerterraza. Berak esaten zuen "aitak txukundu bezalaxe" idazten zuela, inolako ikasketa berezirik gabe, hitz berririk gabe. Herritar xehearentzat idazten zuen Urruzunok. Bere idatzi eta kontakizunen bidez haiengana hurreratu nahi zuen eta ez bestelako intelektual eta pertsona ikasiengana.

Idazteko gaiak eguneroko bizitza arruntean bilatzen zituen, herriko enparantzan, kalean, etxean, dendan, arandegian, baserrian, elizan, kafetegian... edonon. Eta pertsonaiak ere halakoxeak izaten ziren: neska eta mutfizaharrak, sasi-letrauak, mozkortiak, ama-alabak, senar-emazteak, medikuak, ijitoak... Egunean zehar ikusten eta ezagutzen zituen hainbat eta hainbat pertsona suertatzen ziren geroago Urruzunoren kontakizunetako protagonista.

**Ironia eta freskura**

Pedro Migelen ipunetan hainbat gertaera agertzen badira ere, jarraian irakurtzen baditugu guztien artean nolabaiteko antzekotasuna badagoela ikus daiteke. Horregatik, banan banan eta soltean irakurtzea gomendatzen da, ez aspertzeko. Hala ere, Urruzunoren ironia, freskura eta umoreak bene-benetako grazia eranstean die ipuin guztiguztiei. Izugarri gustatzen zitzaizkion, esate baterako, euskararekin eta gaztelaniarekin jolastea. Hau da, nola euskaldunok hitz egiten dugun gaztelaniaz euskal jatorriko hitzak sartuz eta alderantziz, nola euskaraz hitz egiterakoan sarri sartzen ditugun gaztelaniako hainbat eta hainbat hitz. Ipuin oso umoretsuak ateratzen zitzaizkion hitz jokoak eginda.

Izan ere, Luis Maria Larringan-ek esan zuen bezalaxe, "Urruzunok badu ofizioa. Urruzuno ipuingilea da. Bere ipunak ez direla euskal literaturaren itxas-zabal edo ur lodi, ezta urtegi sakon beteak. Eguneroko kontsumorako pentsatuak izan zirela, ederraren mundu sorgindura iristea ezina zaienentzat".

Jose Maria Etxaniz Urruzuno zenak bere senitarteko Pedro Migel Urruzunori buruz herritarrek zuten hainbat iritzijaso zituen "Hiru ziri" liburua hitzaurrean. Hona hemen horien laburpena:

**MOJEK:** "Don Pedro Migel izan zan apaiz piñ, zintzo ta jator bat. Izketan geie-nean bensotan egiten zigun. Guzia erregalatu egiten zuan. Dana eman. Ta elizkizun ikusgarriak egiten zituan. Musika-zalea ere bazan, ta koruko kanta asko berak egihak ziran. Nobena eta mezak ere oso ederrak izaten ziran. Errosarioa berak egindako kanta ederrez errezatzen genduan".

**APAIZAK:** "Don Pedro Migel izan zan umrlla ta oso langillea. Eliz-kantak, gahon-agurrak eta beren bertsoetako laguntasuna, berak egiten zituan. Organistak askotan joaten ziran Urruzuno-gana idazkien billa bere musika jartzeko. Bere elizkizun eta komentuko lanak bukatu, sartzen zan bere etxetxoan, eta iskribatzen asten zan. Zenbat bertso eta zenbat ipui idatzi ote zuan! Ta dana euskeraz. Gutzi izango dira Don Pedro Migel ainbat lan gure euskararen alde egindakoak".

**SAKRISTAUAK:** "Kanta batek Donostia bakarra mundua dala esaten du; banik orixe bera esango nuke Don Pedrogatik. Arentzat danok ziran berdifiak. Ez aberats eta ez pobre. Danen laguna zan".

**BASERRITARRAK:** "Guretzako, baserritarrentzako, Don Pedro Migel izan zan apaiz ona ta lagun ohea. Ura zan guretzat apaiz, abogadua, iskribientia ta dana. Ta bere rpuñ ta txisteekin naikua parre eragiten zigun".

**ARGINAK:** " Ura bai zala gizona! Zenbat mesede egin zuan! Beretzat ezertxo ere ez, dana besterentzat".

**IJITOAK:** "Don Pedro Migel oso gure maitea zan. Listoa ere bai noski! Errietan beti, baña bai barkatu ere. Berak ere asko maite gifitm. Ta gure ipuiak berri... zer ederki iskribitzen zituan! Beti konseju onak ematen zizkigun, baña gu... beti ijitoak!".

# Ba al dakizu zein zen Pedro Migel Urruzuno?




**FERNANDO MARCOS**  
48 urte, montadorea

Elgoibarko norbait dela eta kale bat bere izenean dagoela badakit, baina ez daukat idearik ere nor izan zen eta zer egin zuen.



**JUANITO GOROSTIZA**  
72 urte, jubilatua

20 urtian bizi izan naiz bere izena dakan kalia! Abadia zan eta idazlia baina pertsonalki ez naban ezautu. Hala ere, askotan entzun izan ditut hari buruzko kontuak.



**ARANTXA NARBAIZA**  
44 urte, etxekoandrea

Kale bat dao izen horrekin baina ez dakitx zein izan zan. Ez naiz Elgoibarkua eta gauza asko ez dakitx, Mazzantini toterua zala, hori bai!




**EDURNE VELA**  
18 urte, Iangabetua

Ez, ez zait ezaguna egiten inondik inora. Baserriak dauden auzo bat dago Urruzuno izena duena baina hortik aurrera... Klasean ere ez dut sekula izen hori entzun.



**DAMIANA GARATE**  
79 urte

Gizon haundixa izan zan, jakintsua eta jatofTa zala entzuten zan baina ezin dot esan seguru-seguru zer ein zaban. Hori ez dakitx oin momentuan.



**JUAN J. BASTARRIKA**  
41 urte, pasteleroa

Ez dakit, idearik ere ez! Badao ondiok pertsonajerik ezagutzeko herrixan. Izen hori dakan kalia badao baina zeinen omenez jarri zeben...



## 01 E RKI IGOGAILUAK

Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

" 943 20 35 15 e ABERIAK 943 20 31 25  
Bista Eder, 11 (sotanoa) e 20600 EIBAR

30vx Aranock  
Gillermo Topres



Albcd'rav\*za  
klinika



San Floke, 26 • TEL: 943 74 07 04 — 908 87 39 40

**Lanbroa**

Pedro Muguruza 5  
Tel: 9-43 74 08 06  
20870 **ELGOIBAR**



# ISPILUARI DEGIRA



**MALAPE**  
tabernakoa

*NEKUSAE ACBIZU*

- Egarrria kentzeko edari bat? - Ura.
- Eta ajea kentzeko? - Coca-cola.
- Nor gonbidatuko zenuke trago bat hartzera?  
- Nire lagun bat.
- Triste zaudenean zein musika entzuten duzu?  
- Musika lasaia eta tristea.
- Tabernan gehien jartzen duzun abestia?  
- Ez dago abesti bat bereziki jartzen dudana, orohar musika lasaia ipintzen dut.
- Zoriontsu izateko zein osagai sartuko zenituzke koktelera batean?  
- Lagunak, adiskidetasunarekin zerikusia duten gauza guztiak orokorrean.
- Ligatzeko, barra barruan ala kanpoan?  
- Barruan, dudarik gabe.
- Herriko zein txokok osatuko lukete konbinatu egoki bat?  
- Herritik kanpora irtenda, San Lorentzok eta Mintxetak adibidez.
- Muztioa bezain hitz goxorik esan al dizute inoiz tabernan? - Noizean behin bai, baina kanpotik datozenci normalean ez zaie kasurik egiten.
- Zer ospatuko zenuke topa eginez?  
- Aspaldi ikusi ez dudan lagunen batekin elkartzea.
- Edari nahasketarik egokiena? - Gin-Tonic-a.
- Gogoratzen al duzu zure lehenengo mozkorra?  
- Aspaldi izan zen.
- Eta azkenengo parranda?  
Hau ere aspaldi izan zen baina gogoan daukat.
- Zer ezkutatuko zenuke tabernako ke artean?  
- Inbiria eta gorrotoa.
- Zer bistaraziko zenuke Malapeko kristal zartatutik?  
- Malape bera.
- Udaberrirako edari bat? - Garagardoa.
- Tabernari ez izatekotan, zein lanbide aukeratuko zenuke? - Ez dakit zein, baina aukera izanez gero tabernari ez behintzat.
- Ofizio bihurtu nahiko zenukeen afizioa?  
- Afizioak ezin dira ofizio bihurtu.

Irati Agirreazaldegi

## ileapaindegia

# AGURTZANE



- Soloriuma
- Ezkongaienezako orrazkerok eta makilaiak
- Jounartzeetarako orrozkerak
- Aurrez deitu ordua hartzeko

*Iferostose e9uzkitoko  
2 produktu  
erosterokoon...*



*motrilo bot  
oporil*

San Bartolome, 4 otzeoldeo  
Tel: 943 74 18 64

• **Kale-garbitetako makinaren aberia**

Pasa den Ostiral Santu goizean, kalea garbitzeko makinak matxura edo aberia izan zuen. Makinak olio jarri handia izan zuen eta herriko ia kale denak olio zirela ziren. Plaza Handia, San Bartolome, Errosario eta San Frantzisko kaleak oso labainkorrak geratu ziren batean eta bestean zabaldu zen olioarengatik. Kanean zebiltzan herritar asko erori eta batek edo bestek kolpe ederra hartu zuen. Jakin dugunez, pertsona bat Mendaroko Ospitalera eraman zuten hartutako kolpearen eraginez. Hala ere, laister batean irten zen Ospitaletik. Eguerdiko ordu baterako, garbitzaileek kale guztiak garbitzea lortu zuten presiozko ura erabiliz eta zerrautsa Iurrean zabalduz.

• **Bi istripu Aste Santuko oporretan**

Udaltzaingotik jasotako informazioaren arabera, Aste Santuko jai-zubiko egunetan bi istripu arin gertatu dira Elgoibarren. Ostiral Santu gauean izan ziren bi istripuak leku berean, gaueko 23:30ean lehenengoa eta ordubete beranduago bigarrena. Lerungo futbol zelai zaharraren errebueltan gertatu ziren eta, zorionez, inork ez zuen zauririk izan. Sargentoak adierazi digunez, "kolpea bakarrik izan zen, txapa kontua. 131 istripu leku eta kasik ordu berean gertatu zirenez, olio isurketaren bat egon zela pentsatzen dugu, eta horixe izan daiteke errepidea hain labainkorra egoteko arrazoia".

**Herritar ugari Aste Santuko prozesioetan**

**A**ste Santuan eguraldi benetan eskasa izan arren, eliz ospakizunetan jendeak ez du atzera egin. Hilaren 5ean, Erramu domekan, herritar ugari ikus zitekeen erramuekin eskuetan. Goizeko 11:00etan Jesus eta 12 apostoluak Santa Klaratik Plaza Handira iritsi ziren Udaltxistulariek lagunduta. Segidan, eliz arkupeetan erramuak bedeinkatu eta intsentsua bota zuen parrokoak. Hurrengo domekan, Pazko domekan hain zuzen, eguraldi txarra zela-eta, prozesioa bertan behera geratzeko arriskua zegoen arren, aterrun bat aprobetxatu eta kale buelta egiteko aukera izan zen. Aipagarria da aurreko urteetan baino jende gehiagok hartu zuela parte prozesioan. Aurretik, Benantzio parrokoak laguntzaile guztien lana eskertu eta oroigarri bat eman zion Hari tz Dantzari Taldeko zuzendariari 25 urteotako laguntzarengatik. Jarraian Amabirjinaren eta Jesusen topaketa egin eta prozesioa hasi zen. Aste Santuko elizkizun berezietan jende ugari egon dela esan digute parrokoak. "Bai parrokoak, bai Malan eta bai Santa Klaran herritar asko egon da".



**Posta legearen kontraka ordukalla anuztea**

Hilaren 29an greba orokorra egingo dute postariak

riorreos edo Postako lan%—"gileek lanuzte partziala egin zuten hilaren 6, 7, eta 8an PPren Posta Publikoari buruzko lege berriaren aurka. Elgoibarko 9 postarik 3 orduko lanuztea egin zuten eta goizeko 9:30etatik 12:30era bitartean ez zen postarik banatu, nahiz eta gobernuak ezarritako gutxieneko zerbitzua mantendu zen (premiazko postaren harrera eta banaketa). Correosko langile baten komentatu digunez, "errekurritu egin ditugu gutxieneko zerbitzuak, "gehiegizkoa baita". Datorren 27 eta 28an ere 3 orduko geldialdiak egingo dituzte. Hilaren 29rako, berriz, greba orokorra deitu dute CCOO, UGT, ELA, ESK, LAB eta beste sindikatu batzuek.

PPk bultzatu nahi duen legeak CIU eta PNV/EAJren laguntza jaso du. "Lege honen posta publikoa kolokan jarriko du. 350 gr.tik beherako gutunak enpresa pribatuek banatu ahal izango dituzte eta ezingo dugu eurekin konpetitu. Honen ondorioz, enpresa pribatuek banatu nahi ez dituzten zerbitzuak geratuko


zaizkigu, basenietako eta herriko urrun dauden lekuetako gutunak hain zuzen. Posta publikoa desagertzen bada, nork ziurtatuko du urrutiko lekuetara posta banatuko denik. Bezeroa aterako da kalte". Hil honen 30ean plataforma sindikala berriz bilduko da maiatzean egingo dituzten ekintzak zehazteko.



## Gerra eta bakearen arteko kontrasteak Kultur Etxean ikusgai

Talde Antimilitaristak eta Zuhaitz Astialdi Taldeak "Kontrasteak, Gerra versus Bakea" izeneko erakusketa antolatu dute, 'Mugarik Gabe' Gobernu Kanpoko erakundeak prestatutakoa. Atzo, osteguna, ireki zituen atek erakusketak eta hilaren 30em arte egongo da ikusgai Kultur Etxean. Maketa, panel eta hainbat elementu bisualen bidez gerra sufritzen duten pertsonen ikuspuntua azaltzen da. Erakusketaren helburua gerrak gizartean eta bereziki pertsonengan sortzen dituen ondorio larriez jendea sensibilizatzea da, gerra eta bakearen arteko kontrasteak aurrez aurre jarritz. Bisitaldi gidatuak antolatu dira herritarrentzat, euskarazkoa hilaren 21ean, asteartea, arratsaldeko 19:00etan izango da. Honez gain, ikastaxeetako 1.000 haur eta gazteentzako bisitaldi gidatuak ere egingo dira.

Bestalde, erakusketaren osagarri modura, zine kluba, kontzertua eta haurrentzako jolasak izango dira. Ostegunean, hilak 23, "Capitan Conan" filmea botako dute Herriko Antzokian. Larunbatean, hilak 25, *Anari* eta *Betagarri* taldeek kontzertua emango dute Gaztetxean. Azkenik, hilaren 30ean, haur eta gaztetxoentzako jolasak eta dinamikak egingo dira Plaza Handian. Honez gain, intsumisioari buruzko argazki erakusketa egongo da Gaztetxean hilaren 30era arte.



## • Sigma, OTA eta denda txikien egoera aztertu ditu HBk

Herri Batasunak Sigma, OTA eta denda txikien egoera aztertzen duen buletina banatu du etxetz etxe. Elgoibarrek bizi duen "une garrantzitsu" honetan, hiru gai hauen garrantzia azpimarratzen dute. "Batetik, iazko ekainean Unialcok Lerunen supermerkatu bat eraikitzeke asmoa azaldu zuen. Udalak dio ezin diola ezetz eman proiektu honi. Txankakua Elkartearen laguntza bereganatzen saiatu da alkatea eta gainera, ez du inpaktu azterketarik egin nahi izan". Honen aurrean, aipatutako azterketa egitea eskatzen du HBk, "denda txikiei nola eragingo dien jakiteko". Sigmako gaiari buruz, "Tur industrial bezala mantentzea beharrezkoa dela uste dugu, horretarako Udalarren eta Industria Sailaren inplikazioa behar da". Elgoibarko dendarien etorkizuna are beltzagoa ikusten du HBk OTA martxan jarriko bada. "Superfizie handiek aparkalekuak doan eskaintzen badituzte, OTAk ez dio denda txikiei lagunduko". OTAk ez du aparkalekuen arazoa konponduko HBren ustetan. "Beraz, bertan behera lagatzea eskatzen dugu eta Alkorta lurretan, esaterako, etxeak eraikitzen hasten direnean, garajeak edo lurrazpiko aparkalekuak egitea proposatzen dugu".



## Itxaropena abesbatzak kontiurtua emango du Iparraldean eta Orion

Itxaropena abesbatzak Iparraldeko Saint Palais herrian abestuko du hilaren 19an. Bertako abesbatzaren 10. urteurrena dela-eta, beste abesbatza batzuekin batera jaialdi batean hartuko dute parte. Goizez kalejiran arituko dira, hazkaria izango dute eguerdian, eta arratsaldean, kontzertua izango da. Silvia Hernandez elgoibartarra da Itxaropena abesbatzaren zuzendaria. Honako kanta hauek abestuko dituzte: 'Ilbiamo', 'Finlandia', 'Only You', 'Itsasoa' eta 'Kaiku'.

Hurrengo domekan, berriz, hilak 26, Orioko "Salatxo" abesbatzaren 5. urteurrena ospatzeko antolatu den 'Abesbatzen I. Topaketeta'n hartuko dute parte beste bost abesbatzekin batera. Goizean kalez kale arituko dira abesbatza guztiak eta arratsaldeko 18:00etan, kontzertua eskainiko dute Orioko frontoian.



## Elgoibarko Izarraren Batzar Orokorra

Elgoibarko Izarra Kutur Elkartek urteko Bazkideen Batzar Orokorra egin zuen hilaren 7an. 20 lagun ingururen aurrean 97ko memoria eta 98ko asmoak eta aurrekontuak azaldu zituzten Elkarte lehendakari eta proiektuen arduradunek. Elkarteari buruzko informazio zabalkundeari eman beharreko garrantzia eta elkartek duen jende berriaren premia izan ziren punturik azpimarraganiak. Bestalde, diru kontuei dagokienean, 97an 38 milioiko gastuak izan zituzten. 98rako, berriz, 40 milioiko aurrekontua prestatu dute. Beste puntu garrantzitsu bat lehendakari aldaketa izan zen haina oraingoz ezin dute lehendakari berririk aurkeztu, ez baitute ordezkorik topatu.

*Esther Mugerzak 10 urte daramatza gaixoekin Lourdesera joaten eta bera da Elgoibarko talde antolatzailearen ardura-duna. Esan digunez, berarentzat esperientzia benetan aberatsa izan da eta lehenengo urtean bertan erabaki zuen ahal zuen guztietan errepikatuko zuela. Bere hitzetan, bai gaixoak baita laguntzai-leak ere "indarberrituta" itzultzen dira, "benetan merezi du". Aurten, maiatzaren 22tik 25era joango dira.*

# ESTHER MUGERZA

## "Ezindua zan mutil bat ibiltzen etorri zan Lourdesetik"

— **Nolatan animatu zinen?**

Etxian tio bat dakagu itsua dana eta era batera edo bestera gauza hoiek bizi ditxuzu. Holaxe, urte batian neuk ere laguntzaile moduan juttia erabaki naban. Lourdesen ikusi nabana ikusitxa, batetik nik etxian dakatena Ioterixia dala konturatu nitzan, nahiz eta batzuetan agobiauta eon, eta bestetik, gaixuek zure laguntza zela eskertzen daben ikusitxa, benetan rnerezi dau esperientzia errepikatziak.

**Zenbat lagun joaten zarete?**

- Gipuzkoa osorako 320 ohe ematen ditxue gaixuentzat. Herri bakoitzetik jun nahi dabenek izena eman eta informe bat bete bihar dabe. Medikuek ikusten dabe gaixo bakoitza juteko moduan dauan ala ez. Hori gaixueri dagokienian. Ostantzian, la-

guntzaile modura nahi dabana jutun da baina bere poltsikotikan jarri bihar dau dirua gastuak ordaintzeko.

**Zer egiten duzue?**

- Laguntzailiak goizeko 5etan jaikitzen gera preparau eta gosaltzeko. Gero, ospitalera jutun gera gaixuena eta haiek garbitxu, jantzi eta jangelara eramaten ditxugu gosaltzeko. Danak preparautakuan egunian zihar itxeko dauden gauzak itxen dia. Egun batian Gipuzkoako eguna izaten da eta gotzaiak emanda mezia eoten da euskeraz. Antortxen prozesiua ere itxen da, nazioarteko mezia, Gurutzbidia... Umiak aparte egoten dia begiraliekin, plan desberdina eukitzen dabe.

— **Esperientzia gogorrak ikusten al dira?**

- Bai, oso. Iaz pistinetan egon nintzan eta han ikusi nitxun gauzarik gogorrenak. Gai-

xuak pistinan sartzen lagundu eta erdixan dauan Ama Birjinangana eramaten ditxuzu. Atna Bidinari musu bat eman, otoitz egin eta ur azpitan sartzen ditxugu. Behin pasau jatan emakume bat ikustia Ama Birjinari kristonak esaten urtebetian senarra eta seme-alabak hil jakozelako. Oso gogorra izan zan.

**Laguntzaile gehiago zaudete gaixoak baino, ez?**

Bai, normalian gaixo bakoitzak beti-beti daka gitxienez pertsona bat berari laguntzeko. Kontua da familia batzuetan danak jutun dila eta azkenian jende mordo bat elkartzen gera. Hori ona da. Kasu honetan behintzat jendia oso solidanua dala esan leike. Iaz 31() gaixo eta 350 laguntzaile jun ginan.

— **Hamar urte daramatzatu.**

- Bai, droga bat bezela da. Behin jun ezkerro errepikatzia nahi dozu. Indarberritxuta etortzen zera handikan, edozer eitxeko indarrakin, animuekin eta ilusiekin. Eta hori da inportantiena. Gaixo asko negarrez eoten dia azkenengo egunian. Askok urte osuan fetxa hoietan bakarrik urtetzen dia eta eurentzat zoriona da hori, ezin leike beste ezerrekin pagau. Horregatik, Lourdesen egoten geran egunetan denbora guztian gaixuak zer nahi haura ein bihar dozu, euren egunak dia eta.

**Ezagutu al duzu sendatu den norbait?**

- Hara jendia sinismen eta fede haundixakin jutun da. Nik badakitx ume bat jaiotzatik ezindua zana eta ezin zana ibili gaur egun kamillero jutun dala. Gurasuek uretan sartu zebe eta handik ibiltzen urten zan.

### IESTEEK ESANA

"Estherri eta talde osoari esker, eta Jainkoaren laguntzaz, sufritzen dutenengana hurbilizen eta hauek ulertzen ikasi dugu, gure maitasuna emanez".

ARANTXA ARMENDIA, taldekidea



# *Txiki* BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 43. GEHIGARRIA



Ag)

11

**A**rgazkian ikastolako DBHko 3. mailako ikasleak soin hezkuntzako klase batean ikus ditzakegu. DBHko Kurrikulum berrietan gorputz espresioari ata[ oso bat eskaintzen zaio, bertan Dantza

eta Erritmoa dira ardatz nagusiak. Helburu hau lortzeko dantza saioak antolatu dira, ikasleek erritmo ezberdina duten munduko hainbat dantza ikasteko. Saio hauen azken helburua musikari egokitutako koreografia lan bat burutzea izango da.

## 7x4:4tea,,

Eta zu, zer moduz zaude?- galdetzen dio medikuak gaixoari.  
-Hori zuk esan behar didazu, horretarako ordaintzen dizut.



# Jakitunen eskutik

## Kontuz eguzkiarekin!

**A**spaldian eguzki gehiegi ikusi ez badugu ere, kontua da udaberria gure artean dela eta uste baino lehen udako lehen izpiak gainean izango ditugula. Eguzkitan goxo-goxo egotea gustatzen zaigu gehienoi eta onurak badituen arren, arretaz ibili behar da, izan ere, aspaldian eguzki gehiegi eta gaizki hartzeak izan ditzakeen arriskuez sarri hitz egiten baitute adituek.


Kaltetuenak haurrak izaten dira kontu hauetan.

Umeen azala oso sentsiblea da eta txikitan izaten dituzten erredurek eragina izan dezakete gerora eta azalean arazo larriak sor daitezke.

Frogatua dago 18 urtetik behera izaten diren eguzki erredurek eragin zuzena dutela helduen artean agertzen diren melanoma txarretan. Haurrek ez dute erabat garatuta azalaren fotoprotekzio sistema naturala. Horregatik, askoz sentsibleagoak dira eguzkiaren aurrean eta lehenago erretzen dira, batez ere azal zuria

dutenak. Hori dela-eta, hainbat aholku jarraitzea gomendatzen dute adituek. Esate baterako, ez da eguzkirik hartu behar eguerdian, gorputza kamiseta ilun batekin eta burua txapelaz estaltzea komeni da eta une oro krema babesgarria ematea. Kremarik onenak UVA eta UVB izpietatik babesten dituztenak dira, filtro fisikoa dutenak, urarekin eta izerdiarekin ez direnak joaten eta, noski, irritaziorik sortzen ez duten krema arinak

eta naturalak, haurren azalerako bereziki prestatuak daudenak. Sekula ez dira erabili behar 15 zenbakiko babesela baino gutxiago duten kremak. Izan ere, umetan indize altua duten krema babesleak erabili izan duten helduen artean azaleko minbizia sortzeko arriskua %75era jaisten da. Horrez gain, eguzkia hartu ondoren emateko sortutako krema bereziak ematea komeni da, galdutako ura berreskuratu eta azalaren lehortasunari aurre egiteko.



## Zer iritzi daukazu 140~~:~a ri buruz?



Sei gimt41, fmhait am,a43,a, iUla 44,e(441..1-1D4 ke444~4.


AITZIBER CANCIO del PINO, 8 urte



**110**

KaKtg(4 4pamt,04.kK <(42.1,a4.ki)44.44~Ut, o1, eitm, 4.14,14114). 8□44.4, ~O Itatate?

JORGE DIEGUEZ, 1 2 urte.



ix.p44~ taA., 444.c

ti)1411,e+, 19utalto.

JOKIN ZUBIAURRE, 10 urte



**MAIIANE  
INSAUSTI**  
11 urte

## Gaide debaide

- 1- Gehien gustatzen zaizun txutxeria?
- 2- Zenbat ordu ematen duzu telebista ikusten?
- 3- Ba al duzu senargairik?
- 4- Zein hiru gauza eramango zenituzke irla batera?
- 5- Zerk beldurtzen zaitu?
- 6- Gehien gustatzen zaizun famatua?
- 7- Dantza egiteko abestia?
- 8- Pintxorik gustukoena?

**ISELLA  
VILAL**  
12 urte

1. Fresazko txiklia, globuak itxeko.
- 2- Piskat, marrazki bizidunak edo futbola ikusteko.
- 3- Ez, ez jata bat ere gustatzen.
- 4- Bainujantzia, txanpua eta esponja.
- 5- Mamuak.
- 6- Monica Naranjo.  
Spice Girls taldian abestixak.
13. Ez jataz gustatzen tabernetako pintxuak.

- 1- Apetinas izeneko pajitak.
- 3- Bi ordu edo, marrazki bizidunak eta teleserieak ikusten.
- 4- Ez, gazteegia naiz.
- 4- Telebista bat, lagun bat eta janaria.
- 5- Gauzez bakarrik egoteak.
- 6- Tom Cruise.
- 7- "Titanic" pelikulakoa.
- 8- Patata-tortila.

## Zer da.smth-Ptea4~?

**GAIZISA 1013AJAS 7 1U12TE**



"Niretzat zoriontasuna futboleant, Errealean jokatzea da".

**ITSELTZ 7 ABTALAGA 11 urte**



"Ezkontza bat daukazunean edo loteria tokatzen zaizunean sentitzen duzuna da".

**ESILISO 11M13I 7 URIE**




"Eskolako lanak ondo egitea eta maitatzed.

**OILL FIXAS 117 9 urte**



"Barruan sentitzen duzun irribarre txikia".

**XA1911L G1L 11 UITIL:**




"Anai txiki bat izaten duzunean sentitzen duzun sentimendua".

**Lriur GALITE 9 urte**





"Zoriontsua izatea, ondo pasatzea, beti pozik egotea, lagunekin, familiarekin zorionez bizitzea".


ERANTZUNAK: 1- Komuneko papera, 2- Zeren aldeko manifestazioa antolatuko zenuke? eta 4- Teilatua, seilua eta eskutitza eta tximinia,

uooduol  
ons UDOWD9  
'oazni D4a  
onisa 


•19auop!uaz  
uowa onsnw  
po!oppzi  
zoo6 ulanolig —

.016aun.[so  ueranci ou!oci  
iolocioz o4a opuoti  
'opio6-!\_uo6 'op




'1311111ZlppUSY 

ouni oupuop AZDZO 91011 





„njsoiol nop ualoz! Lijza  
ola op ualoSa oinodmio  
uoijounou clowoJi  
olozold mia4solol  
uo4olad  
aJa uloxfJna 'apio uopc{ i  
oquoJj olainodol Uby  
olo z!ou !z!ci upuosoJn,,

31211/11dZIY NINOf

„,)ion>mou  
OpflOp ZO iop Joyci  
oxla6 a)pod orioH  
.Jazopa apio uo!zpol  
uoieloq punol ouns!cl  
D.19 UpplOCI OpJOW  
o!dun9  ipanoLi  
a)pod uanocpo613,,

**apn LL**  
Z3d01 391111530



InePIDO JeZ 

nialqo Dp aaz 

**zioze losodcuoquaa**



## azar: EorPaI Etzl Jal, EUEDI PMEW1111

Plenoan udalerrri intsumitua izendatzearen aldeko mozioa aurkeztu zuten EA, HB eta IUk, baina ez zuten aurrera egin

*Apirilaren 6an ez ohiko plenoa izan zen 1998ko aurrekontuen inguruan. Alderdien artean nolabaiteko eztabaida sortu zen zenbait diru partida direbaina, azkenean, EA, EAJ eta PSEren botuekin tripartitoak aurkezturiko aurrekontua onartu zen. Guztira 1.131.600.000 pezetako aurrekontua du Elgoibarko Udalak 1998 urterako. Plenoan aztertu zen bigarren puntu garrantzitsua Elgoibar udalerrri intsumitua izendatzeari buruzkoa izan zen eta honen inguruan istiluak egon ziren. Hona hemen alderdi bakoitzak esan zuena.*

### EB-IU

Juan Ignacio Ausin, EB-1Uko ordezkariak "San Roke eta Urasandiko gazteek lokal propioa izan dezaten 2 milioi pezeta eta hirugarren mundurako guxtienez elizari ematen zaion diru partida berbera" proposatu zituen. Ausinen hitzetan aurrekontuak izaera "kontinuista" dauka, "aurrezki gordinak behera egin du gastu arrunta igo delako. Gasteizko buruzagien eskua ikus daiteke".

### HB

Herri Batasunako Pello Mendizabalen esanetan. "Udalak Instituzioen artean anaia pobreak dira. %10 baka-fifik jasotzen dugu eta HBk behin eta herriz esan du gutxienez %15a jaso behar genukeela". HBk elgoibartarrek dituzten beharrak eta kezkek zerrendatu zituen: "aparkaleku falta, superfizie handiek izan dezaketen eragina eta aurrekontuaren zati bat enpleguan inbertitzea ezinbestekoa da". Bestalde, "Elgoibarko Izarrak iaz aurkeztu zuten Euskara Batzordean euskaltegien elkarlanerako proiektuaren kostua 3 milioikoa da eta ez da inondik inora azaltzen aurrekontuan". Preso politikoen gaia ere gogora ekarri zuten Pellok eta gazteentzako diru partida 6 milioitiki 2ra jaitzi izana salatu zuten. Bukatzeko, alkatearen dietak murriztea eskatu zuten eta "Oruesagastiren liberazioa alperrikako gastua" dela gaineratu. Era berean, "kartel eta pintadak kentzeko 11



*Intsumisioari buruzko mozioa atzera botatzean, zenbait gazte Udaletxeko balkoian kateatu ziren.*

milioiko partidaren atzean ideologia politiko desberdinen adierazpenak ezabatze helburua" ikusten du HBk.

### EA

Fermin Senosiain, EAko zinegotziak adierazi zuenez, "aurrekontua 'kontinuista' da baina zentzu ona kontuan hartuta. Ikusi besterik ez dago nola hobetu diren kultura eta kirol zerbitzuak". Era berean, Senosiainek, 3. mundurako "pintaden atalera zuzendutako dirutik sobratzen dena ONGei ematea" proposatu zuten.

### PNV

Isaak Loiola, haziendako lehendakari eta EAJ-PNVko zinegotziak esan zuenez, "gurea etxean egindako aurrekontua da. Gero eta gutxiago gaude beste instituzioen menpe eta honen eragina du". Loiolak Albitxurien gaia azpimarratu zuten, "gauzak uste bezala ateratzen badira industria berriak sortu eta lanpostu betiari ekarriko ditu".

### Elgoibar Udalerrri Intsumitua izendatzearen aldeko mozioa

Ales Arrieta (EA), Juan Karlos Markos (HB) eta Juan Ignacio Ausinek (IU-EB) Elgoibar udalerrri intsumitua izendatzearen aldeko mozioa aurkeztu zuten. Horrez gain, Udalak ejerzitoarekin ez kolaboratzea eta erreklutazio

orriak ez bidaltzea eskatu zuten. PPko Juan Carlos Abianek azaldu zuenez, "hori eginez ez dugu ezer konpontzen. Urte gutxi banu ejerzito profesionala izango dugu". HBren iritziz, "Gobernuak soldadutza eta ordezkari zerbitzua inposatu dituzte. Horren aurrean gazteek intsumisioaren aldeko apostua egin dute, euren eskubideak etengabe zapaltzen diren bitartean". PNVk azaldu zuenez, "1994an Talde Antinailitaristarekin batera onartu genuen mozioarekin bat egiten dugu. Alderdi bezala heta azaldu izan gara soldadutza eta ordezkari zerbitzuaren kontra baina erreklutazio orriak ez bidaltzeak ez du ezertarako balio eta herri intsumitu izendatzeak ere ez du efektu praktikorik. Hortaz, ezetz botatuko dugu".

**HB,** EA eta IUk baietz botatu arren, gainontzeko ezezko botoekin atzera hota zen mozioa. Une horretan, pleno aretoan zegoen gazte taldeak kexa eta oihu artean altxatu eta pankarta bat zabaldu zuten. Ondoren, zenbait kide Udaletxeko balkoian kateatu ziren eta han izan ziren gaueko 22:00ak arte. Gazte Asanbladako kide batek esan zigunez, "Udaltzainek eragotzi egin ziguten pleno aretora igotzea eta gainean generamatzen poltsa guztiak behean uzteko agindu ziguten. Ez dago eskubiderik. Horrelakorik ez dute egiten gainontzeko herritarrekin".

(1. Kap.) Zerga zuzenak	252.480.000	(az 240.007.565)
(2. Kap.) Eraikuntza eta obretako zergak	20.002.252	(loz 20.000.000)
(3. Kap.) Beste tasa eta zerga batzuk	216.298.000	(laz 209.778.000)
(4. Kap.) Laguntzak	592.613.327	(laz 615.490.487)
(5. Kap.) Depasitoen interesak etab.	356.000	(laz 700.000)
(6. Kap.) Inbertsio errealeen enajenazioa	600.000	(laz 31.000.000)
(7. Kap.) Bestelako laguntzak	110.523.948	(laz 81.848.653)

**GUZTIRA** ..... **1.131.600.000** (laz 1.227.500.000)

(1. Kap.) Pertsonal gastuak	315.859.071	(laz 296.596.415)
(2. Kap.) Gastu arruntak	302.414.860	(loz 274.023.615)
(3. Kap.) Interesak	59.605.762	(laz 79.369.707)
(4. Kap.) Subentzia arruntak	243.035.659	(laz 239.722.071)
(6. Kap.) Inbertsioak	97.300.866	(loz 231.520.805)
(7. Kap.) DEBEMENi aportazioa	3.754.310	(laz 3.691.113)
(9. Kap.) Matleguen amortizazioa	109.629.472	(laz 102.576.274)

**GUZTIRA** ..... **1.131.600.000** (laz 1.227.500.000)


## AJWLIMCDITTUA, tE1112



Pertsonal gastuak	8 918.823
DEBABE euskaltegia	8 933.418
Elkarteel laguntzak	15.597.046
Bestelako gastuak	1 375.200

**GUZTIRA** ..... **34.824.487** (laz 40.597.225)

mvrormin/A



ZOR PUBLIKOA	169.235.234
GESTIO EKONOMIKOA	Pertsonal gastuak 42.610.102
	Tresneria eta material erosceta 10.299.952


**GUZTIRA** ..... **222.145.288** (laz 246.311.533)

1M. Illir


ULTi

t< 1111./W2£11. L1 ~ 1

<b>HIRIGINTZA</b>	Pertsonal gastuak	15.304.488
	INJELAN	2 000.000
	Erreminto Makinaren museoari laguntza	3 000.000
	Lurren erosceta	1 000.000
	Hiri altzarren erosceta	5 500.000
	SIGMAko Inmuebleen erosceta	8 000.000
	Inmuebleen konponketa eta erosceta	5 250.000
	Altzolako plan parizlala	1 000.000
	Kartogratia	3 933.000
	Bestelako gastuak	9 951.705
<b>URA</b>	Pertsonal gastuak	10.559.113
	Ur horniketa	33.134.967
	Tresneria	2 350.000
	Ur Patzuergoaren azplegitura	24.606.808
	Instalazioen konponketa	2 000.000
	Energia horniketa	2 450.000
	Bestelako gastuak	269.564
<b>BIDE PUBLIKOAK</b>	Pertsonal gastuak	47.424.598
	Santa Klarako obrak	9 500.000
	Urasandiko monopatina	2 500.000
	Elizako dorrearen konponketa	2 000.000
	Son Pedroko etxeetako horma	3 000.000
	Makinen erosceta eta alogera	3 700.000
	Bide publiko eta	9 510.000
	Energia Elektrikoaren hornikuntza	14.000.000
	Tresneria	8 500.000
	Bestelako gastuak	2 701.356
<b>NEKAZAL GARAPENA</b>	Auzoetako lanak	28.300.000
	DEBEMEN	3 754.310
<b>INGURUGIROA</b>	Arbola eta landareen erosceta	1 000.000
<b>GUZTIRA</b>		<b>266.199.909</b> (laz 356.299.239)



A



%16

Agintarien ordainsariak .....	15.936.327
Dieta, protokolo eta telefono gastuak .....	2.250.000
Hainbat gastu .....	945.000
Kondsloetara asistertziet .....	9.000.000
<b>DEBEGESA .....</b>	<b>24.714.640</b>
Adirninistralen ordainsariak .....	28.217.014
Bestelako gastuak .....	17.305.000
Udaltzalnen ordainsariak .....	78.698.881
Erosketak, konponketak, Jantziak .....	5.622.130
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>182.688.992 (laz 150.999.487)</b>

U211-12USIZI1

CA • 0


11 IA4

C, SASU

• AZO A

<b>ONGIZATEA ETA OSASUNA .....</b>	<b>Pertsonal gastuak .....</b>	<b>33.368.813</b>
	San Lazaro egollza .....	17.200.000
	Etxez etxeko laguntza .....	12.500.000
	Garantia sozialesko moduluak .....	1 500.000
	Kooperazio sozialesko programa .....	3 500.000
	Lardoldietamko familiei laguntzak .....	6 200.000
	Elkarteel laguntzak .....	2 700.000
	Bestelako gastuak .....	2 915.000
	Jubilatuen Etxea .....	11.450.000
<b>KALE GARBIKETA .....</b>	<b>Pintadak .....</b>	<b>11.500.000</b>
	Kale garbiketa .....	36.362.074
	Zabor bilketa .....	40.080.312
Hilerria .....	6 200.000	
Kontsumitzaileen babesa .....	2 252.012	
Azoka .....	7 344.627	
Babes soziala .....	3 030.659	
Pentsioak .....	6 710.000	
Enpleguaren sustapena .....	829.975	
Bergizarteratze soziala .....	3 865.000	
Eguneko Zentroa .....	9 779.490	
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>219.287.962 (laz 232.941.150)</b>	


%19,3



KIROLA zinnanf

<b>HEZKUNTZA .....</b>	<b>Pertsonal gastuak .....</b>	<b>3 260.702</b>
	Eskolen gastuak .....	10.512.797
	Eskolen konponketa .....	1 680.000
	Hainbat gastu .....	11.070.167
<b>KULTURA .....</b>	<b>Pertsonal gastuak .....</b>	<b>11.188.032</b>
	Musika Fundazioa .....	42.000.000
	Kirol Patronatua .....	41.060.000
	Herriko Jalak .....	30.230.350
	Pelkulen alogera eta garraloea .....	7 300.000
	Udal Gazte Batzordea .....	2 000.000
	Antzezaldeak .....	3 500.000
	Kultur Elkarreel diruraguntzak .....	6 165.978
	Haurtzaindegia .....	7 884.680
	Auzoetako Jalak .....	2 150.000
	Zine subentzloak .....	1 723.080
	Bestelako gastuak .....	7 045.000
<b>LIBURUTEGIA .....</b>	<b>Pertsonal gastuak .....</b>	<b>8 822.576</b>
	Liburuen erosketa .....	1 700.000
	Bestelako gastuak .....	1 760.000
<b>GUZTIRA .....</b>	<b>206.453.362 (laz 200.351.336)</b>	

%18,2



## RI

Boom shaka  
shaka Boom

**M**sika egiten denean kontuan hartu beharreko gauza asko dago, batzuek era batean konposauen dituzte beraien abestiak, batek daki inspirazioaren eremuak non dauden. Talde asko dago beraien "hit" potentzialak abestiak konplikatuz ateratzen dituztenak. Dena eginda dagoela pentsatzen clugunean, hara non da torkigun SHELLAC izeneko Chicagoko hirukotea. Masa, abiadura eta denboraren jaun eta jabe bailiran, kitarra, baxua eta bateriarekin izugarrizko abestiak "oparitzen" dizkigute. Bzzz... hsss... b000m... b000m... tutupa... kupidarik gabeko bateriak eta baxuak gidatzen dituzte abesti guztiak, kitarra mingots batek rnarakatutako kolpeen bidez jazten dituztelarik. Abesti guztiak gordetzen dituzten sinpletasunaren barruan, bada beste abestietatik desberdintzen den zerbait, perfekzioa ote... Steve Albini dugu hirukotearen buru, Big Black taldea eratu ondoren eta talde askoren diskak ekoiztu ondoren (R.I. Harvey, Bush, Pixies... eta azkenaldi honetan Robert Plant eta Jimmy Page-ren diska berria) SHELLAC taldea sortu zuen. Dagoeneko bi diska ditu kalean "At action park" eta "Terraform". Bihotz taipadak+burinuin uhinak=SHELLAC... 1+1=3... eh Bixen?

Iban Urizar

ungarí eta herriko sei elkartek hilabetez  
luzatu den zine egitasmoa prestatu dute

Elgoibarko Izarra, Zuhaitz, Haizea, Zazpiki, Gazte Asanblada eta Antimillak dira elkarlanean arituko direnak

**1, 6 7** inea eta Konektiboak" dizenburupean, Ongarri Zine Kluba eta herriko sei elkartek hilaren 23tik maiatzaren 14ra bitarteko zine zikloa aurkeztu zuten pasa den asteartean. Lau pelikula emango dira datozen lau ostegunetan: hilak 23, hilak 30, maiatzak 7 eta maiatzak 14. Egun bakoitzean emango den pelikula a egitasmo hone tan parte hartzen duen kolektibo bakoitzaren helburuekin lotuta dago. Adibidez, hilaren 23an, Elgoibarko Talde Antimilitaristak eta Zuhaitz Astialdi Taldeak antolatutako egitarauaren baitan, "Capinin Conan" pelikula emango da zine klubean. Hilaren 30ean Elgoibarko Izarraren txanda izango da. Bi emanaldi prestatu dituzte egun honetarako. Lehendabiziko filmea, euskarazko "Txotx" izenburuko laburmetraia da, 25 minutuko iraupeneko. Ziurtatua ez badago ere, laburmetraiaren zuzendaria, Asier Altuna, ekitaldian egongo da filmearen aurkezpena egiteko. Ondoren,



Aurkezpen egunean, Ongarri Zine Kluba, Talde Antimilitarista, Gazte Asanblada, Zazpiki, Zuhaitz, Elgoibarko Izarra eta Haizeako kideak.

Gabbeh pelikula iranian•a emango da jatorrizko hizkuntzan euskarazko azpititduekin. Hurrengo emanaldia maiatzaren 7an izango da. Gazte Asanbladak eta Zazpikik elkarlanean "Persiguiendo a Amy" pelikula emango dute. Azkenik, maiatzaren 14an, HAIZEA Emakume Taldeak antolatutako Ekologiari buruzko Astearen barruan, Kurosawa zuzendari japoniarren "Dersu Uzala" pelikula ikusi ahal izango da. Pelikula guztiak Herriko Antzokian izango dira gaueko 22:15ean hasita.

Isadora lan2zari estatubatuarrari buruzko  
lijografia kaleratu du Jasone Osorok

**E**karlanean argialetxearen eskari bati erantzunez, Jasone Osoro idazle eta BARRREneko lankideak, EEBBetako dantzariarik ezagunena izan den Isadora Duncani buruzko bizitzaren gorabeherak bildu ditu liburu batean. Hitzaurrea Josu Mujika dantzari elgoibartarrarena da. Liburua joan den astean aurkeztu zen Donostian eta dagoeneko salgai dago. Isadora emakume iraultzailea izan zen bai dantzan bai bizitza pertsonalean. Izan ere, Isadora ballet klasikoaren aurka azaldu zen eta gaur egungo dantza modemoak berak hasitakoan du jatorria. Ez-

kontzaren kontra zegoen, emakumeen alde borrokatu zuen, herriaren alde... Deskapotable batean zihola, bere txal gorria haizeak gurpil batean korapilatu eta urkatuta hil zen emakume honen bizitza ezagutzea merezi du.

Bestalde, Diario Vasco egunkariak ateratzen duen buru salduen artean, ZeITCfidaburua izan zen joan den astean Jasone Osororen Tentazioak ipuin-bilduma. Merkaturatu zenetik hiru aste pasatu eta gero, bosgarren izatetik lehenengo postura pasatu da elgoibartarraren liburua.



## Gustave Barrolluta3k Bakearen Munduko Orkestan joko du

Mundu osoko musikariek hilaren 19an Alemanian kontzertua emango dute

**G**ustavo Barrenetxea tronpajole elgoibartarra mundu osoko musikariek osatzen duten "Bakearen Orkesta"ko kide izateko hautatu dute. Oso gutxik izaten dute horrelako egitasmo batean parte hartzeko aukera; horietariko bat da Gustavo. Hilaren 19an "Bakearen Munduko Orkesta"k kontzertua emango du Alemaniako Baden-Baden herrian. Gustavok ez du egun hori sekula ahaztuko. Munduko musikari onenen artean egoteko hautatua izatea ez da egunero gertatzen.

"World Orchestra for peace" izena dauka orkesta, bakearen aldeko munduko orkesta alegia, eta duela gutxi hil den Sir George Solti zuzendaria zenaren ohorez eratu da. 25 herrialdeko 40 musikari elkartzeko dira. Estatu espainolek ordezkaritza bakarria izango da: Gustavo Barrenetxea. 27 urteko elgoibartar honekin batera Chicagoko, San Franciscoko eta Amsterdam-eko orkestatoko



*Gustavo Barrenetxea, San Bartolomeetan Udal Musika Bandak ematen duen kontzertuan.*

musikariek joko dute tronpako kordan, Mendelsshon, Brahms eta Bela Bartok autoreen piezak eskainiko dituztelarik. Gustavo munduko musikari onenen

artean aukeratu dute. Aukeraketa honetarako arrazoiak bere kurrikulumean topa daitezke: Aita Agirre plazako Musika Akademiaren solfeoa ikasi zuen eta 11 urterekin ekin zion tronpari. Bere irakasleak hauek izan dira: Jose A. Sanchez-Ballesteros (Donostia), Melissa Mussulin (Euskadiko Orkesta bakarlaria), Rodolfo Epelde (Orkesta Nazionala), July Studebaker (Amsterdam-eko Royal Concertgeouw-ko bakarlaria) eta Chicagoko Orkestra Sinfonikoko Dale Clevenger eta Daniel Gingrich tronpa joleak. Donostiako Kontserbatorioko Orkesta kide izan ondoren Iruñeko Pablo Sarasate eta Euskadiko Sinfonikarekin jo izan du. 22 urterekin Sevillako Real Orkestra Sinfonikako tronpista plaza eskuratu zuen. Gaur egun bertan jarraitzen du. Honez gain, Cadaqu&-eko Orkestra Sinfonikarekin eta Chicagoko "Elmurst Sinfony Orchestra"rekin parte hartu du.

## Altzolan anala

*taberna*

- Etxeko sukaldaritza
- Eguneroko menua
- Asteburuetan parrilan egindako jaki bereziak:

**"Txitxarroa**

**@ Itsas-zapoa**

*o Legatza*

**o Txuleta**

*o Saiheskia*

Bainuetxeko Zumardia, 5 ALTZOLA • Tel: 943 74 43 46

## 23 neska- mthek hartu zlinen 11ruae H11

DIEUDIE

nigo Lariz, Iban Conde, Leire Apellaniz eta Aitor Arrillaga izan ziren irabazleak

**A**ste Santuko oporren aurreko zapa-tuan jokatu zen Eskola Kiroleko jolas programaren baitan antolatuta Haurren I. Triatloi txapelketa. Guztira 23 neska-mutil aritu ziren infantil, ben-



jamin eta alebin kategorietan banatuta. Arratsaldeko 15:30ean hasi zen txapelketa atletismo probarekin. Mintxeta inguruan kilometro bat korritu ostean, beste kilometro bat egin zuten bizikleta gainean Mintxetatik Kiroldegira bitartean, IMHtik pasatuz. Kiroldegian bizikletak utzi eta igeriketa proba hasi zen ondoren igerilekuan. Benjaminek 25 metroko distantzia burutu zuten, 50 metrokoa alebinek eta 100 metro infantilek, denek krol estiloan.

*Atzean, Aitor Kapanaga eta Gorka Sastre antolatzaileak. Ondoren, irabazleak: Ifigo Lariz, Iban Konde, Leire Apellaniz eta Aitor Arrillaga.*

### INFANTILAK

- 1- Iñigo Lariz
- 2- Gurutz Quintano

### ALEBINAK

- 1- Iban Conde
- 2- Andoni Gabilondo
- 3- Antxon Alberdi

### NESKAK

- 1- Leire Apellaniz
- 2- Marta Conde

### BENJAMINAK

- 1- Aitor Arrillaga
- 2- Beñat Urain
- 3- Unai Arce

## Maialen Morak Espainiako Judo Txapelketan parte hartzeko aukera izan dezake

**E**lgoibarko Ibai Kirol Elkarteko lea den Maialen Mora Espainiako Judo txapelketako sektorerako sailkatu zen bigarren postua lortu eta gero. 15 urtez azpiko mailan hartu zuen parte elgoibartar honek. Gogor borrokatu ostean, bigarren postua lortzea meritu handikoa da, 12 urte besterik ez ditu eta. Hurrengo urtean lehen edo bigarren lekuan sailkatuz gero, Madrilera joango -litza-teke Espainiako Txapelketan parte hartzera, 61 beherako kategorian.



Bestetik, Ibai Kirol Elkarteko eta Udal Kirol Patronatuko gimnasia erritmikoko alebin taldea, Gipuzkoako Eskola Txapelketako finale-rako sailkatu zen hilaren 4an Urretxun. Emaitzak nahiko onak izan ziren, bai banaka bai taldeka. Izan ere, Carmen Lendinezek lehen postua eskuratu zuen sokarekin egindako lan politaren ordainetan. Horrela bada, Elgoibarko gimnasia denak pasatuko dira finalera, nahiz eta baieztapen ofizialaren zain dauden. Finalak Donostian jokatuko dira.

### Idarraga Kafeak I. Saria

C.D.ko jokalaria erregularrena 97/98

Jokalaria	Puntuak
1- Gorka Guarroboena...	43
2- Miguel Diaz .....	39
3- Karlos Madina .....	32
4- Eneko Barrenetxea .....	32
5- Jabier Gurrutxaga .....	29
6- Iker Atxabaf .....	25
7- Ander Iruretagoiena .....	25
8- Koldo Agirregomezkorta	22
9- Gaizka Lazaroaster .....	21
10- Unai Aranburu .....	19
11- Joseba Igartua .....	17
12- Xabier Alonso .....	11
13- Jon Argoitia .....	9
14- Mikel Elkorolribe	9
15- Igor Prieto .....	8
16- Aiert Zinkunegi .....	8
17- Aitor Trebiño .....	8
18- Mixel Badiola .....	6

- Kontabilitate

- Lan

- Fiskai

ITT ERCOS ASEGURUAK



URKIDI

AHOLKULARITZA


Kalamua, 12  
ELGOIBAR  
Tel-Faxa:  
943 74 18 91



ELGOIBAR

KAROB  
rin

Tel. 943 74 06 37  
San Frantzisko. 37



hi<sup>da</sup>&f<sup>aty</sup>/

# flosooon gazte

## llaru ginou 011artzunen"

**Hodei Otegi 15 urte ditu eta aurtun lehenengo coldiz izan da Ezker Abertzaleak eta Jarraik bi urtean behin antolatzen duten Gazte Topaguneak akanpadan. Oartzunen 20.000 gazte elkartu dira aurtengo edizioan. Hotza eta euria ez dira nahikoak izan neska-mutil hauek hainbat gairi buruz eztabaidatu, kontzertuak entzun eta ondo pasatzeko. Elgoibartik 20 lagun inguru joan ziren. Hona hemen Hodeik kontatu dizkigunak.**

**- Zer da Gazte Topagunea?**

- Ezker Abertzaleko Gazteek eta zuzenean Jarraik antolatzen deben mobida bat. Gaztiak inplikatzeko antolatzen da eta gazte hoiei marko bat emateko Jarrairen lema nagusienetarikoa garatzeko: "independentziaz biziz inklependentzia bizitzeko". Hiru-lau egunetan, gaztiak independentziaz pasatzian oinarritzen da, guk ein nahi dogun Euskai Herrian bizitzeko markoan.

**- Aurten Clartzunen, iaz Etxarrin eta aurrekoan Zaldibin.** Holako mobida bat antolatzeko garrantzitsua da azpiegitura minimo bat egotia eta alkatetza Herri Batasunak eukitzia, ze ezinezkoa da holako gauza bat antolatzeko eskatzia PNV edo PSEko bati.

**Nola zegoen antolatuta guz-**

**tia? txoznak, karpak...**


- Gazte danak kanpinetan egon gera eta gero txoznak zeuden eta bi karpa. Karpa bat txikixaua zan eta han kontzertu txikixauak egoten zian, jendia kafia hartzera jutun zan... Gero gune batzuk zeuden: kirol gunea, gazte esperientzien gunea eta holakuak. Hoietan hainbat gairi buruz eztabaidatzen zan.

**- Lagunekin joan zara, ez?**

- Bai, batez ere ondo pasatzera jun ginan baina baitxa hango hitzaldixetan parte hartu eta kontzertuak entzutera ere: "Gazteak eta Herri Batasuna", "Presoen inguruko borroka" eta abar. Gabian kontzertuetara: Alaitz eta Maider, Etsaiak, Su Ta Gar, Pi LT, Lorelei... Aurreko ediziuetan ordu bakoitziarian gauza bat egoten zan baina aurtun hainbat ekintza zeuden aukeran, bakoitzak nahi zabanera juteko.

**- Jarrai eta HBren giroko gazteak bakarrik izan al zarete?**

- Bai, Elgoibartik jundakuak behintzat ezker abertzalian ingurukuak ginan danak. Hori bai, topagunia irikixa zan eta nahi zaben gazte danek zaken aukeria juteko. Gauza bat argitzia nahiko neuke. Asko entzun da egun hauetan zerga iraultzailia dala-ta ez dala sortu dan kontua. Antolatzailek ein zaben gauza



bakarra izan zan tabernarixeri laguntza eskatzia holako mobida bat antolatziak suposatzen daban gastuari aurre eiteko, azken batian eurek ere irabazi ein dabe jende asko jun dalako. Elgoibarren antolatu zanian Kilometroak berdina ein zebeu eta ez zan holako zala-partarik sortu.

**- Eguraldiak behintzat ez du gehiegi icsgundu.**

- Ez, hotz haundixa zauan eta lo ere ez dou gehiegi ein baina, hala ere, esperientzia politxa izan da. Jende mordo bat ibili da, espero zana gitxi gorabehera, eta lagun berriak itxen ditzuzu. Ni behintzat berriiz juteko prest.

545<sup>11,4</sup>

ileapaiudegia

Depilazio Elektrikoa

San Franizisko 49-1 tel. 943 74 11 89




**Mandiola S.L. Egurak**

Domingo Arrizabalaga

SALEROSKETA  
BASOEN MOZKETA

Juarl Mugerza, 3. z 943 74 12 56 **hugikor.**) 909 53 23 83



## INTERESEKO TELEFONOAK

### OSASUNA

Anbulategia:	
Larrialdiak .....	461111
Txanda hartzeko .....	743354
Planning-a .....	742950
Alkoholiko Anonimoak ..	740385
D.Y.A (anbulantzia) .....	464622
Gurutze Gorria .....	743864
Mendaroko Ospitalea .....	756264
Odol Emaileak .....	743936

### GARRAIOAK

Eusko Trenbideak .....	740442
PESA (Eibar) .....	902 10 12 10
Taxi geltokia .....	740898

### IMALA

Euskara Zerbitzua .....	744366
Udal Kirol Patronatua ..	744415
Kultura Zerbitzua .....	742158
Mendaroko Udala .....	756100
Ongizate zerbitzua .....	741008
Udaletxea .....	741050
Udaltzaingoa .....	741394

### BESTEIAKOAK

Elgoibarko Izarra .....	741626
Kiroldegia .....	744415
Kontsumo Bulegoa .....	743088
Libu rutegia .....	743525
Musika Eskola .....	742145
Mintxeta .....	744315
Parrokia .....	740842
Postetxea .....	741547
Gaztetxea .....	741357

### AD1NEKOEN ETXEAK

San Lazaro Egoitza .....	740296
Zaharren Biltokia .....	740526

### IKASTETXEA

Herrri Eskola .....	74 01 54
Herrri (EPA) .....	74 08 80
Herrri Eskola .....	74 08 79
N1 H .....	74 41 32
Herrri Institutua	
Arreiturre .....	74 02 67
Ezenarro (Meka) .....	74 44 80
Ikastola .....	74 44 41
Pilar Ikastetxea .....	74 13 31

### KOIRIKABIDIAK

BARREN .....	74 41 12
El Diario Vasco .....	74 40 73
El Gorreo Espartol .....	74 10 82
Egin .....	10 84 21
Zazpiki Irratia .....	74 34 74

## 19 igandea

16:30 ZINEA  
"Sagu txiki, sagu maite"

19:30-22:15 ZINEA  
"Chacal"

## asteleYlena

20:00  
IKUSENTZUNEZKO SAIOA  
Izenburua: "Iparralde: Xiberuatik itsasora"  
Kultur Etxean  
Antolatzailea: Haritz Dantzari Taldea

22:15 ZINEA  
"Chacal"

## 28 osteguna

21:30 KANTALDIA  
Polito Ibañez kubarra  
Oraiko tabernan

22:15 ZINE KLUBA  
"Capith Conan"  
Antolatzailea: Ongarri Zine Kluba  
Laguntzaileak: Elgoibarko Talde Antimilitarista eta Zuhaitz A. T.

## 17 ostirala

19:00 GAZTE  
ASANBLADAREN  
BILERA  
Gaztetxean

22:15 ZINE KLUBA  
"Kolya"

## 1 larun a a

12:00 ZAZPIKIREN  
BILERA  
ganbaran

22:00 KONTZERTUA  
"Reccity", "Hatred" eta "%30"  
Gaztetxean

19:30-22:15 ZINEA  
"Chacal"

## 21 asteartea

19:00 GERRA VERSUS  
BAKEA"  
ERAKUSKETAREN  
AURKEZPEN  
GIDATUA (Euskaraz)  
Kultur Etxean  
Hilaren 30era arte  
Antolatzaileak: Talde Antimilitarista eta Zuhaitz A. T.

## 24 ostirala

19:00 GAZTE  
ASANBLADAREN  
BILERA  
Gaztetxean

22:30 DANTZA SAIOA  
Dantzaria: Marta Carrasco  
Herriko Antzokian  
Antolatzailea: Haritz Dantzari Taldea

# 11 NE A



Zuzendaria: Michael Caton-Sones  
Antzezleak: Bruce Willis, Richard Gere, Sidney Poitier.

## Chacal

Errusiar mafiako kide bat hiltzen dute FBIkoek. Bere anaiak mendekua nahi du eta Chacal izeneko tipo bat kontratatzen du amerikar politikoa garrantzitsu bat hiltzeko. FBIkoek Chacal kontratatu dutela jakiten dutenean, IRAko kide bat eta honen neska laguna den ETako exiliatu batengana jotzen dute, eurak baitira Chacal ezagutzen duten pertsona bakarrak.





• **"Iparralde: Xiberuatik itsasoran ikusentzunezkoa**

Haritz Euskal Dantzari Taldearen 25. urteurrena dela-eta, astelehenean, hilak 20, Josu Eizagirrek egindako ikusentzunezkoaren emanaldia izango da Kultur Etxean Kuxta Fundazioaren laguntzaz. Euskaraz eta gaztelaniaz izango den saioa 30 minutuz luzatuko da. Ikusentzunezko honetan Ipar Euskal Herriko hiru probintzietako geografian bame egiten den bidaia erakusten da. Auñamendi eta Hendaiako kostaren arteko 120 kilometrotako paisaia aberatsa eta anitzak ikusi ahal izango dira: Pirinioetako mendiak, Iratiko basoan dagoen Orhi tontorra, Bidarrai eskualdeko mendiak eta Baionan, Aturri itsasoratzen deneraino, beherantz egiten duen erliebea. Emanaldia arratsaldeko 20:00etan hasiko da.



• **Marta Carrasco dantzariaren "Aiguarden" ikuskizuna**

Haritz Dantzari Taldearen 25. urteurrenko ekitaldien bueltan, datorren ostiralean, hilak 24, dantza saioa izango da Marta Carrascoren eskutik. "Aiguarden" izeneko ikuskizuna eskainiko du dantzari kataluniarrek, 1995ean sortua da ikuskizun hau eta dagoeneko Estatu osoan eskaini ditu emanaldiak. Pep Bou eta Ariel Garcia Valcisen zuzendaritzapean, emakume baten historiaren barna egiten den bidaia-aren kontakizuna da, antzerkiaz eta dantzaz baliatuz. "Intimotasunaren radlografia" dela esan daiteke. Ikuskizuna gaueko 22:30ean izango da Herriko Antzokian.

• **55eko kintoen bazkaria**

Bihar, larunbata, hilak 18, 1955eko kintoak elkartuko dira jaiegun polita pasatzeko asmoarekin. Goizean meza entzungo dute Santa Klaran eta eguerdiko 14:30ean bazkaria izango dute Gorbea jatetxean.

• **Zazpiki Irratiaren bilera**

Bihar, hilak 18, bilerarako deia luzatu du Zazpiki irratia. Bilera eguerdiko 12:00etan izango da garbaran.

• **Polito Ibañez Hubako kantaria Oraiko tabernan**

Datorren ostegunean, hilak 23, Oraiko tabernan musika kontzertua eman go du Polito Ibañez Kubako kantariak. Kitarraz lagunduta, bere erreperatorioko hainbat abesti kantatuko ditu. Gaueko 21:30ean hasiko da saioa. Ez da sarrerarik egongo.

**T X A N D A K**

**FARMAZIAK**

- Egunez Gaez  
 18 **Bidasolo Bidasolo**  
 19 **Bidasolo Bidasolo**  
 20 **Etxeberria Etxeberria**  
 (Santa Ana kalean)  
**21 Zabaleta Zabaleta**  
**22 Etxeberria Etxeberria**  
 (Errosario kalean)  
**23 Escala Escala**  
 24 **Bidasolo Bidasolo**  
 ESCALA: **Rekalde, 1**  
**Soraluze. Tel: 75 16 38**  
 ZABALETA: **Kalebarren, 9**  
**Soraluze. Tel: 75 13 84**

**OKINDEGIA**

**19** igandea Zabaleta

ONGARRI  
 e kluba  
 rjt  
 9-4  
 Z



Zuzendaria: B. Tavernier  
 Antzezleak: Philippe Torreffin, Samuel La Binau, Bernard Le Coq.

**Capbn Conan (Franzial)**

I. Mundu Gerratean Frantziako Ejerzitoa tropa bulgariar, turko eta alemaniarren aurka borrokatzen da. Gerraren aurkako izpiritu garbia du filme honek, eta bi pertsonaiaren bidez isladatzen dizkigu gerraren ondorio izuganriak: Conan kapitaina eta Norbert tenientea. 1934an Gouncourt saria jaso zuen elaberri batean dago oinarrituta. Pelikula hau 97ko filme onenetakoa kontsideratu dute aho batez kritiko espainiarrek.

NR • N all • • • • • 11

## Iana

## \*ESKAINZA\*

- Neska euskalduna behar da 2 ume zaintzeko. 5 74 05 14/ 74 15 16/ 75 23 14 (bulego orduetan)
- Jendea behar da rebarbatzaile lana egiteko. Interesatuak deitu 15 18 16 telefonora.
- Kamareroa behar da tabernarako. te 74 27 22
- Neska behar da etxeko lanak egin eta umea zaintzeko. te 74 12 33 (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)
- Etxeko lanak egiteko eta umea zaintzeko neska euskalduna behar da. tr 74 37 22 (goizeko 8:30etatik 10:30etara)
- Pertsona bat behar da barran eta sukaldean lan egiteko. Ahal izanez gero esperientziarekin. te 74 37 60

## \*ESKAERA\*

- Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. e 74 20 72 (Edurne)
- 24 urteko neska prest dago kanguro bezala aritzeko edo etxeko lanak egiteko asteburuetan. ir 74 04 59
- Ingeles eta frantseseko itzulpen literarioak egiten dira enpresa eta bestelakoentzat. tr 74 04 59
- Arratsaldeetan umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko neska eskaintzen da. tr 74 23 90
- Neska eskaintzen da haurrak zaindu edo tabernan lan egiteko. Tr 75 60 42
- Goizez orduka lan egiteko emakumea eskaintzen da. ir 74 01 36 (arratsaldeko 20:00etatik aurrera)
- Emakume gaztea eskaintzen da etxeko lanak egin edo haurrak eta nagusiak zaintzeko. Informeeekin. 2r 58 40 31
- Neska eskaintzen da etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. Esperientziarekin. ir 908 67 05 70
- Atzerriko komertzioan titulatu eskaintzen da dandari lana egiteko, umeak zaindu edo etxeko lanak egiteko. tr 74 10 09
- ♦ Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egin eta haurrak zaintzeko egun osorako. Esperientziarekin. [tr.19.21.28](http://tr.19.21.28) (Asun)
- Etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko neska eskaintzen da. u. 74 23 90
- Modista-diseinatzaile tituludtina eskaintzen da konponketak egiteko eta erropa josi eta diseinatzeko. [esperientziarekin.er](http://esperientziarekin.er) 74 21 44 (Ana Isabel)

## Partikularrak

- Enpresariales ikasketetako Ekonomia I eta II ikasgaien klase partikularrak hartuko nituzke. tr 74 15 24.
- Humanistikako klaseak emateko norbait behar da. tr 74 14 03
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut. Talde txikiak. tr 74 07 86
- Humanistikako klaseak hartuko nituzke selektibitateko. ir 74 09 85
- Alemaneko klase partikularrak ematen ditut. s\* 74 00 98
- Kimika lizentziatua naiz eta fisika, kimika eta matematikako klase partikularrak ematen ditut. tr 74 44 45 (Arrate)
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut goizez. tr 75 50 35 (Imanol)
- Eskola aholkularitza partikularrak ematen dira 13 urtetik 20ra bitartekoentzat. 74 41 16/ 907 15 30 62
- Kitarra klase partikularrak (solfeo gabe) ematen dituen norbaiten bila nabil. 0 74 12 05 (gauez)

## Elxebizitzak

- Soraluzeko Loralde kalean etxea salgai. le 74 34 05
- Pisua alokatzen da Madrilén. Ikasleentzako aproposa. tr 74 31 56
- Pisu txikia edo buhardila bat alokatuko nuke. tr 74 43 10 (Cristobal)
- Etxea konpartitzeko pertsona behar da Elgoibarren. tr 989 35 73 70 (arratsaldeko 8etatik aurrera)
- Pisua salgai Urasandi 5-3an. Ganbara ere dauka. tr 74 13 57
- Etxea salgai Logrohon. Erdialdean dago, 2 logela, egongela, sukaldia, jangela, bainugela eta trasteroa ditu. Prezioa hitz egitekotan. tr 74 19 39
- Pisua salgai Santa Ana kalean. 4. pisua igogailuarekin. 105 m2 eta ganbara. le 74 11 05
- Etxebizitza saltzen da Errosario 6-lean. er 70 26 34
- Buhardilla bat salgai P.M. Urruzuno kalean. Igogailua du. 2 logela, egongela, sukaldia, komuna eta ganbara. tr 74 34 96 (Ana, gauez).

## Garajeak

- Garajea saldu edo alokatzen da Juan Mugerza kalean. a 74 12 04
- Garajea alokatzen da, Pista beltzaren azpian. tr 74 14 89
- Marradun garajea alokatzen da pista beltzean 5.000 pezetan. tr 74 00 70 (gauez)
- Garaje itxia saltzen da Arregitoren. tir 75 51 77 (Tere)
- Garaje itxia alokatzen da Leku-Ederren, tr 74 26 94
- Marradun garajea alokatzen da San Roke 5-7an. n 74 33 39
- Garaje itxia saltzen da Pedro Migel Un'uzuno kalean. t? 74 22 00 (Gaueko 21:00etatik aurrera)

## Salerosketak

## • SALDU\*

- Kotxe kapota, kotxea estaltzeko eta 2 manta salgai. Guztiak berriak. tr 74 44 16
- Aukera. Karabana salgai. Oso ondo zaindua. Prezioa 350.000 pta. mr 74 27 29
- Motozerra saltzen da. Husquarna 45. Nahiko berria. 25.000 pta. 'tr 74 11 29
- Aleaziozko 4 errobera saltzen ditut. Wolksvagen Polo autorako. 20.000 pta.n. 74 43 10 (Kitxo)
- Ezkongaietako bi soineko saltzen ditut. Kolore zuria dute eta 40 zentbakia. Prezioa hitz egitekotan. Ts 15 03 95
- Kotxe-kapota berria saltzen dut. mr 74 44 16
- Kanpin denda berria salgai. tr 74 24 39

## \*EROSI\*

- Lokal merkea erosi nahi genuke kalean. 74 36 94 (Ainhoa Alonso)
- Manikiak behar ditut eskaparaterako. s 58 09 18 (Bego)

## Bestelakoak

- Perikito grisa aurkitu dut. Hanka batean auila bat dauka. Galdu duenak dei dezala 74 04 97 telefonora.
- Katu siamesa galdu dut Ennua-ranbide kalean. Nahiko iluna. Norbait aurkitu badu, mesedez dei dezala. mr 74 35 48 (Puri)
- Iltru txakur "ratonero" emango nituzke, Hilabete dute. le 75 60 42
- Taberna traspasatzen da Errosario kalean. Bezeroekin. [ir.74.01.80](http://ir.74.01.80)
- Karabana saltzen da. Egoera oso onean. Tel: 350.000 pezeta. tr 74 27 29 (arratsaldeko 20:00e ta-tik aurrera)

## Agurrak

- Zorionak Nerea Herviasi hilaren 2an 8 urte bete zituelako. Guraso, anaia Iban, aitona-amona, osaba-izeba eta lehengusuen partez,
- Zorionak Leire Blancori apirilaren 7an 14 urte bete zituelako. Anaia Pascualen partez.
- Zoionak Leire eta Paseual Blancori apirilaren 7an 14 urte bete zituelako. Jonathan, Aritz eta Breixoren partez.



- Kaixo, Ainhoa! Larunbat honetan 10 kandelak itzaltzen lagunduko dizugu. Zorionak, pitufa, Leire eta familiarien partez.



- Zorionak Kristina Monterori hilaren 11n utteak bete zituelako. Jabi, Ana eta Miarriaren partez



- Zorionak Unairi hilaren 10ean urteak bete zituelako. Familiaren partez eta bereziki Zailoren partez.





**Eskariari erantzuteko  
baserriak behar ditugu  
eta  
Etxebizitzak ere bai**

**Deitu lasai**



San Frantzisko, 56  
Tel/ Faxe: 943 74 02 40  
[E-mail: churru@mx3.redestb.es](mailto:churru@mx3.redestb.es)




an  
rri  
gu

17 cluizas  
clit



LIBRO DEL AÑO 1997

J. r rmir .p.r  
JO4'tlr-  
cym-Ap.r



% 10eko  
liburu guz  
t-15W,0,11 -

liburuak sinatzeko.

W)sysl-

